**Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak Gizartearen Erronketara Bideratutako Ikerketaren, Garapenaren eta Berrikuntzaren Estatuko Programako erronken eta lankidetzaren deialdiari dagozkion laguntzak emateko 2015eko deialdia egin du, Ikerketa Zientifiko eta Teknikoaren eta Berrikuntzaren 2013-2016 aldirako Estatuko Programaren esparruan (BOE, 2015-01-22koa)**

**Deialdiaren helburua***:*
Erronken eta lankidetzaren deialdiaren helburua enpresen eta ikerketa erakundeen arteko lankidetza proiektuak laguntzea da, teknologia berriak garatzea eta ideia eta teknika berriak enpresetan aplikatzea bultzatzeko, eta produktu eta zerbitzu berriak sortzen laguntzeko.

2. Proiektu hauekin erronketan ezarritako lehentasunekin bat datozen konponbideen bilaketan aurrera egingo da, enpresa berritzaileen sorrera sustatuko da, egungo enpresen jarduera berrikuntzara bideratuko da, inbertsio pribatua mugiaraziko da, enplegua sortuko da eta herrialdeko balantza teknologikoa hobetuko da, baita Espainiako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eta bere agenteen nazioarteko lidergo gaitasuna indartu ere, enpresen lehiakortasuna hobetzen lagunduz.

**Proiektuaren ezaugarriak:**
Laguntzaren xede izango diren proiektuak **Garapen Esperimentaleko** proiektuak izango dira eta ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- Gutxieneko aurrekontua: 500.000 euro.
- **Jarduerak urte anitzekoak izango dira**, proiektuaren zati bat 2015ean egin beharko da. 2016ko abenduaren 31tik 2018ko abenduaren 31ra bitartean amaituko dira.
- **Partaidetza:**
    - **Eskatzaileak enpresa** bat izan beharko du (ezin dira eskatzaile izan enpresa elkarteak).
    - **Bi parte-hartzaile gutxienez**: enpresa bat eta ikerketa erakunde publiko edo pribatu bat.
    - Entitate bakoitzaren **gutxieneko partaidetza:** proiektuaren guztizko aurrekontuaren **% 10** edo gehiago.
    - **Enpresa partaidetza** (enpresak eta enpresa elkarteak): proiektuaren guztizko aurrekontuaren **% 60a baina gehiago izan behar da.** Entitateek **ezin** dute proiektuaren aurrekontuaren **% 70 baino gehiagoko partaidetza izan.**

**Onuradunak:**

- Ikerketa erakunde publikoak.
- **Unibertsitate publikoak.**
- I+G-ko beste zentro publiko batzuk.

vrinvestigacion@ehu.es
www.ehu.es

**BIZKAIKO CAMPUSA**
**CAMPUS DE BIZKAIA**
Sarriena Auzoa, z/g
48940 LEIOA
T: 94-601.8008
F: 94-601.5856

- Estatuko teknologia zentroak eta Estatuko berrikuntza teknologikorako laguntza zentroak.
- Unibertsitate pribatuak I+G-n, gaitasun eta jarduera egiaztatuarekin.
- I+G-ko beste zentro pribatuak.
- Enpresak.
- Enpresa elkarte sektorialak.

**Eskaerak aurkezteko epea::**
2015eko urtarrilaren 23ko 00:00tik 2015eko otsailaren 24ko 15:00etara arte.

**Eskaera egiteko prozedura:**

1. Eskaerak Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dira.
2. Entitate eskatzaileak proiektuaren alta egin beharko du, haren oinarrizko datuak adieraziz eta entitate parte-hartzaileen alta eginez. Proiektuaren mugarriak ere adierazi beharko ditu, parte-hartzaile bakoitza bere mugarriekin lotuz.
3. 2. urratsa egin arte, entitate parte-hartzaileek ezin izango dute aplikazioan sartu.
4. Entitateak garatu beharreko eginkizunen antolaketa errazte aldera, hautagaiei eskatzen zaie **2015eko urtarrilaren 30a** baino lehen baiezta dezatela deialdian parte hartuko dutela. Horretarako, mezu bat bidali beharko dute, horren berri emanez, helbide honetara: convocatorias.dgi@ehu.es
5. UPV/EHUko ikertzaileek ezin izango dute aplikazioan sartu beren azpiproiektuaren eskaera betetzeko. Eginkizun hau Ikerketaren Arloko Errektoreordetzako langileei dagokie. Beraz, osatu beharreko datuak **2015eko otsailaren 13a baino lehen** bidali beharko dira.
6. Proiektuko entitate parte-hartzaileen alta egin ondoren, entitate horiek beren partaidetza datuak osatu beharko dituzte eta adostasuna sinatu beharko dute (**UPV/EHUk parte-hartzaile gisa bakarrik parte har dezake, beraz, otsailaren 13rako sinatuta izan behar ditugu partaidetza adostasun guztiak**).
7. Entitate eskatzaileak agintzen diren dokumentuak erantsi beharko ditu (memoria teknikoa, memoria teknikoaren adenda eta lankidetza akordioa erantsi beharko ditu), eta laguntza eskaera sinatu eta ERREGISTRATU egin beharko du.

**BETE BEHARREKO EPEEN LABURPENA**

| | |
|---|---|
| **Urtarrilaren 30era arte** | **Hautagaiak deialdian parte hartzeko nahiaren adierazpena** |
| **Otsailaren 13ra arte** | **Formularioak betetzea, UPV/EHUk eskaera osatu ahal izan dezan.** |
| **Otsailak 20** | **UPV/EHUk sinatzeko epearen amaiera (epea 24an amaitzen den arren, ez da komeni sinadura hilaren 20tik haratago atzeratzea,** |

vrinvestigacion@ehu.es
www.ehu.es

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Sarriena Auzoa, z/g
48940 LEIOA
T: 94-601.8008
F: 94-601.5856

| | |
|---|---|
| | **gero enpresak ere epe barruan sinatu ahal izan dezan)** |

**Informazio gehiago:**
Deialdi honetara eskaera egin nahi duten ikertzaile guztiek hala jakinarazi beharko dute, lehenbailehen helbide honetara: convocatorias.dgi@ehu.es.
Kontuan izanda deialdia zein egunetan egongo den zabalik, mesedez, jarri lehenbailehen harremanetan.

**Eskaerak sinatu ahal izateko lankidetza hitzarmena egin beharko da, eta ez da adostasun dokumenturik sinatuko Ikerketaren Arloko Errektoreordetzak hitzarmen hori ontzat eman arte.**

Eskaera aurkeztu ahal izateko, nahitaezkoa da elkarteko kide guztiek parte hartzeko adostasun dokumentua sinatzea. Hori dela eta, ez da komeni parte hartzeko adostasun dokumentu eskaera epearen azken egunera arte sinatu gabe uztea, sinadura elektronikoaren ziurtagiriarekin egon daitekeen edozein arazok eskaera aurkezpena blokea baitezake.

Proiektuan parte hartzeko adostasun dokumentuak eginda egon beharko dira, Ikertaren Arloko errektoreordeak **otsailaren 13a** baino lehen sina ditzan. Halaber, eskaera osoa eta memoria ondorengo helbide elektronikora bidali behar da: convocatorias.dgi@ehu.es (ezinbestekoa Ikerketaren Arloko errektoreordeak partaidetza baimena eman dezan).

Eskaera betetzeko, erakundearen (UPV/EHU) datu hauek behar dira:
IFK: Q4818001B
Helbide soziala: Sarriena auzoa zk.g.
Posta kodea Postal: 48940
Herria: Leioa
Legezko ordezkaria: Fernando Plazaola Muguruza
Kargua: Ikerketaren Arloko errektoreordea.

## UPV/EHUko HARREMANETARAKO PERTSONAK

**Benetan gomendagarria da jarraian zehaztutako pertsonetako edozeinekin harremanetan jartzea, entregatzeko dokumentazioa berrikus dezan eta, hala dagokionean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eskaera elektronikoki sina dezan.**

**IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAKO TEKNIKARIAK**

| | IKASTEGIAK | TEKNIKARIA | TELEFONOA | Helbide elektronikoa |
|---|---|---|---|---|
| **Arabako Campusa** | • Farmazia F.<br>• Letren F.<br>• Gasteizko Enpresa Ikasketen UE<br>• Gasteizko Ingeniaritzako UE<br>• Gasteizko Irakasleen UE<br>• Gasteizko Gizarte Langintzako UE<br>• Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F. | Javier López de Lacalle | 945014407 | convocatoriasaraba.dgi@ehu.es<br>igz.arabadeialdiak@ehu.es |
| | | María Martin | 945013421 | |
| | | Iker Cantabrana | 945013603 | |
| | | Susana Sanz | 946013126 | |
| **Bizkaiko Campusa** | **IKASTEGIAK** | **TEKNIKARIA** | **TELEFONOA** | **Helbide elektronikoa** |
| | • Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.<br>• Bilboko Enpresa Ikasketen UE<br>• (Zubiri Etxea-Sarriko) | Brenda Ubeda | 946013629 | convocatoriasbizkaia3.dgi@ehu.es<br>igz.bizkaia3deialdiak@ehu.es |
| | | Roberto de Miguel | 946013630 | |
| | • Bilboko Ingeniaritza GET<br>• Nautika eta Itsasontzi Makineria GET<br>• Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE<br>• Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | Ane Arruza | 94 6018253 | convocatoriasbizkaia1.dgi@ehu.es<br>igz.bizkaia1deialdiak@ehu.es |
| | | Mikel Uria | 946013964 | |
| | | Pilar Furones | 946017246 | |
| | • Medikuntza eta Odontologia Fakultatea<br>• Leioako Erizaintzako UE<br>• Zientzia eta Teknologia Fakultatea | Endika Ceballos | 946018171 | convocatoriasbizkaia2.dgi@ehu.es<br>igz.bizkaia2deialdiak@ehu.es |
| | | Cristina Castro | 946013341 | |
| | | Leire Carballes | 946018172 | |
| | | Leire Idoiaga | 946018167 | |
| | | Elena Erice | 946018169 | |
| | • Bilboko Irakasleen UE<br>• Arte Ederren Fakultatea<br>• Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.<br>• Lan Harremanen UE | Egoitz Celaya | 946018445 | convocatoriasbizkaia4.dgi@ehu.es<br>igz.bizkaia4deialdiak@ehu.es |
| | | Isabel Urrutia | 946017934 | |
| **Gipuzkoako Campusa** | **IKASTEGIAK** | **TEKNIKARIA** | **TELEFONOA** | **Helbide elektronikoa** |
| | • Zuzenbide F.<br>• Informatika F.<br>• Kimika F. | Amalia Fotinopulos | 943015974 | convocatoriasgipuzkoa.dgi@ehu.es<br>igz.gipuzkoadeialdiak@ehu.es |

vrinvestigacion@ehu.es
www.ehu.es

**BIZKAIKO CAMPUSA**
**CAMPUS DE BIZKAIA**
Sarriena Auzoa, z/g
48940 LEIOA
T: 94-601.8008
F: 94-601.5856

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | • Arkitekturako GET<br>• Psikologia F.<br>• Filosofia eta Hezkuntza Zientzien F.<br>• Donostiako Enpresa Ikasketen UE<br>• Donostiako Erizaintzako UE<br>• Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE<br>• Donostiako Irakasleen UE<br>• Donostiako UE Politeknikoa | Cristina García-Leiva | 943015683 | |
| | | Elena Adarraga | 943015180 | |
| | | Lierni Irure | 943015503 | |
| | | Nerea Casas | 943015359 | |

| EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOKO KONTAKTUAK | |
|---|---|
| **Kontsulta orokorrak** | Telefonoa: 902 21 86 00 / 914 959 554<br>Posta elektroniko bidez, Ministerioko web orrialdetik |
| **Kontsulta informatikoak** | Telefonoa: 91 603 82 20<br>Posta elektroniko bidez, Ministerioko web orrialdetik |